

1. protokoloa: OGP EUSKADI 2018-2020 EKINTZA PLANAREN INPLEMENTAZIOA

(Jarduketa-estandarra bost konpromisoetarako)

1. KONPROMISOETAKO LIDERREN EGINKIZUNAK

Konpromisoetako liderrek **eginkizun** hauek izango dituzte:

1. Bakoitzak bere gain hartuko dituen eginkizunak eta atazak adostea liderkideekin, bai eta beharrezkoa izan litekeen baterako finantzaketa ere
2. Hartutako konpromisoaren inplementazioa bermatuko duten ekintzak zuzendu eta bultzatzea
 - a. Lan teknikoak
 - b. Konpromisoa betetzeko barruko baliabideak esleitzea eta kanpoko kontratazioak egitea
3. Konpromisoaren garapenerako zuzeneko konpromisoa hartu duten erakundeei (ez lider ez liderkide direnei) galdetzea nolako engaiamendua izan nahi duten, finantzarioa barne
4. Egokitzat jotzen diren konpromisoaren araberako taldeak eta azpitaldeak eratzea, 2. puntuan zehaztuko den prozesu irekiaren bitartez
5. OGPren estandarrak beteko direla bermatzea, erabili beharreko metodologiari dagokionez, eta, beraz, konpromisoaren esparruan egiten diren prozesu guztien kalitatearen bermatzaile izatea:
 - a. Elkarlanean aritzea
 - b. Lan irekia egitea, herritarrek parte hartuta
 - c. Lan irekia egitea, hedapenari eta komunikazio irekiari dagokienez
 - d. Lortzen joaten diren prozesuak eta produktuak dokumentatzea, eta gauzatu egin direla erakustea, irudi eta egiaztapenen bitartez
 - i. Funtsezko dokumentuen bertsioak sortuko dira herritarrentzat, hizkera argia erabiliz, erraz eta osorik ulertzeko moduan

1. Konpromisoaren bertsio bat sortuko da herritarrentzat (**konpromisoen fitxa operatiboak**); horixe izango da sortu beharreko funtsezko lehen dokumentua, eta bertan jasoko dira konpondu beharreko arazoaren definizio zabalagoak, mugarriak, lortu beharreko produktuak, kronograma, baliabide tekniko eta finantzarioak (iturriak), harremanetarako pertsona eta jarduera ezagutu nahi duen edonori erantzungo diona, harremanetarako bidea eta abarrekoak
 - a. Irakurketa errazterako metodologiaren arauak beteko dira; teknika horrek testuaren forma, edukia eta hizkera moldatzen ditu, zertan den jakiteko interesa agertzen duen edonork irakurri ahal izan dezan
 - b. Modu guztiz operatibo eta instrumentalean adieraziko dira, igorritako planaren berrikuspenean OGPK ezarritako ildoak jarraituz, konpromisoa berehala abian jartzeko gako diren elementuak: heldu nahi zaion arazoaren identifikazioa; agente jarduleak, harremanetarako informazio eta guzti; gauzatu beharreko mugarriak eta prozesuak eta horien denborak; produktuak eta emaitzaren adierazleak; finantzaketa eta horren iturriak; OGPKo kideen balizko jardunbide egokiak, erreferentziatzen har daitezkeenak...
 - c. Horiek guztiak behetik gorantz landuko dira. Konpromiso-taldeek egingo dituzte konpromisoen fitxa operatibo horiek, adituen, herritarren zein erakundeen ikuspuntuak eskainiz; izan ere, horrelaxe hasiko da ahalduntze-prozesua, konpromisoaren garapenean inplika daitezkeen.
 - d. Eta jarduera osoaren transmisio biderkatzailea egitea ahalbidetuko diguten mekanismoak identifikatuko dituzte, pertsonen, sareen eta horien eragin-espazioen bitartez, denbora errealean
- ii. Ikus-materialak, infografiak, bideoak eta beste baliabide egoki batzuk sortuko dira garrantzizko informazioa jakinarazteko adituak ez diren erabiltzaileei, eta, halaber, erabiltzaile horiek prozesuaren eguneratzean eta emaitzen jakitun jartzeko.
 - e. Beren jarduketan emaitzak eta eragina aztertu ahal izateko informazioa eta adierazleak biltzea, berriaz ezarritako jarraipen-tauletan azaltzen den moduan
6. OGP Euskadi 2018-2020 Ekintza Planaren jarraipen-fitxa betetzen joatea etenik gabe; horrela, dokumentu, albiste, ekitaldi eta abarren berri zabaldu ahal izango da webgunearen bitartez, behar denean hura eguneratu egingo da, eta plan osoaren koordinazioa erraztuko da
7. 2018-2020 Ekintza Plana hedatu eta ezagutaraztea nork bere eragin-eremuan
8. OGP Euskadiren irudi bateratua erabiltzea dokumentu eta komunikazio guztietan

1. konpromiso-taldea: Kontuak ematea



2. konpromiso-taldea: Open Data



3. konpromiso-taldea: *ilab*



4. konpromiso-taldea: Open Eskola



5. konpromiso-taldea: Integritatea



2. KONPROMISOAREN ARABERAKO TALDEAK ERATZEKO PROZESUA

Konpromisoaren araberako taldeak eratzeko, kontuan hartuko dira zenbait inguruabar:

1. Konpromiso-taldeek eginkizun hauek dituzte
 - a. Konpromisoaren definizioa, Ekintza Planean jasota dagoena, zehaztea eta operatibo bihurtzea herritarren ikuspegitik (herritarrenganako erronka)
 - b. Jarraitu beharreko prozesuaren baterako diseinuan laguntzea, konpromisoa inplementatzeko beharrezkoak diren baliabide eta bitartekoei eta zereginei dagokienez (nola egingo diren gauzak)
 - c. Haren inplementazioa monitorizatzea: haren exekuzioa errazten eta prozesuan zehar sor litezkeen arazo edo trabak gainditzen laguntzea
 - d. Autoebaluazioan parte hartzea
 - e. Konpromiso-taldeetan parte hartzeagatik ez da ordainsaririk jasoko, benetan egindako bidaia-gastuen ordaina izan ezik

- f. Konpromiso-taldeek zehaztuko dute zeintzuk izango diren administrazio gidarien barruko zein haietatik kanpoko baliabideekin bete beharreko exekuzio-eginkizunak, konpromiso-taldeen eskumenekoak izango ez direnak, aholku-organoak direlako, eta ez exekuzio-organoak.
2. Zuzeneko exekuzio-eginkizunak ez dira konpromiso-taldeen eginkizun izango, eta honela beteko dira:
 - a. Lider diren administrazioen barruko baliabideen bitartez
 - b. Administrazio horiek kontratatutako kanpoko baliabideen bitartez (berariaz kontratatutako pertsonak, taldeak edo enpresak)
 1. Aztertzeko dago nola egingo diren bateragarri konpromiso-taldeetan (eta Foro Erregularrean) ordainsaririk gabe betetzen diren eginkizunak eta pertsona aditu gisa nahiz produktu entregagarrien enpresa gisa kontratatzen diren kanpo-hornitzaileen eginkizunak.
 3. Erabakitzeko dago ea konpromiso-talde horietan parte hartzea bateraezina izango ote den gerora lanak egiteko kontratazioan parte hartzearekin. Konponbide bat izan liteke, planerako ekarpenen fasean proposatu den bezala, parte-hartzearekin, opengov-arekin edota zerbitzuen diseinuarekin lotutako hainbat motatako zerbitzuak eskaintzen dituzten PERTSONA/ERAKUNDE HORNITZAILEEN DIREKTORIO-KATALOGO ARRAZOITUA egitea, eta, gainera, kontrataziorako eta harremanetarako prozedura argi bat ezartzea, jardunbide egokien araberrako irizpideetan oinarritua (hedapen irekia, norgehiagoka eta lehia...).
 4. Konpromiso-taldeak eratzerakoan, bermatu egingo da ikuspegi hauek ordezkatzen dituzten pertsonak parte hartzea:
 - a. Herritarren ikuspegia
 - b. Teknikari adituen ikuspegia
 - c. Erakundeen ikuspegia (teknikoa/politikoa)
 5. Konpromiso-taldeak eratzerakoan printzipio eta tresna hauek erabiliko dira:
 - a. Hedapen irekia
 - i. OGP Euskadi webgunearen bidez, iragarki bidez, eta lider den erakundeko kide batek parte hartzera animatzeko grabatutako bideoaren bidez
 - ii. Foro Irekiko eta Foro Erregularreko parte-hartzaileei eta ospe egiaztatua duten beste agente aditu batzuei gonbidapenak eginez
 - b. Aniztasuna (erreferentzia gisa harturik Foro Erregularra osatzeko irizpideen Matricea)
 - c. Lanak enkargatzearekin bateragarri izatea (zehaztu gabe dago nola)
 6. OGP Euskadiren irudi bateratua erabiliko dute dokumentu guztietan eta komunikazio guztietan

7. OGPren egitura teknikoarekin eta sareko kide diren beste toki-gobernu batzuekin izan daitezkeen harremanak idazkaritza teknikoan koordinatu eta zentralizatuko dira (ikus behan idazkaritza teknikoaren eginkizunak)

3. IDAZKARITZA TEKNIKOAREN EGINKIZUNAK

Foro Erregularrak onartutako gobernantza ereduan honako hau azaltzen da: *“Idazkaritza tekniko bat izango da. Honako hauek osatuko dute: talde sustatzaileak OGPren aurrean izendatzen duen erakundeen teknikari arduradunak eta Innobasque proiektuaren arduradunak —hautagaitza sustatzen duen herritarren kidea—. Bi pertsona horiek bitartekari gisa jarduten dute Foru Erregularreko kideekin, baina horrez gain lan-saioetako idazkariak eta lan teknikoen eta dokumentuen kudeaketaren koordinatzaileak ere izango dira.”*

Foro Erregularreko eginkizunez harago, idazkaritza teknikoak eginkizun hauek izango lituzke:

- OGPren aurrean planari buruz, oro har, kontuak emateko lan teknikoak koordinatzea
- Herritarren aurrean planaren garapenari buruz, oro har, kontuak emateko lan teknikoak koordinatzea (bertsio formaletan zein herritarrentzako bertsioetan)
- Autoebaluazioetarako eta planaren kanpo-ebaluazioetarako lan teknikoak koordinatzea
- Webgunean argitaratuko diren informazio eta dokumentuak koordinatzea
- Konpromiso-taldeen aurrerapenari buruzko txosten orokorrak egitea, konpromiso-taldeen berek jarraipenerako emandako informazioan oinarrituta
- Foro Erregularren eta Foro Irekiaren deialdiak eta aktak, baldin eta komunak badira konpromiso guztietarako
- Protokolo bateratu eta estandarren aplikazioa bermatzea konpromiso guztietarako prozesu komunetan
- Konpromiso-taldeen arteko informazio- eta garapen-trukea erraztea
- OGPren egitura teknikoarekiko eta sareko kide diren beste toki-gobernu batzuekiko harremanak zentralizatzea

2018-2020 Ekintza Planeko Idazkaritza Teknikoak honako hauek izango lituzke euskarri:

- Gobernu Irekiaren Zuzendaritza, Komunikazio Plan Orokorra inplementatzeko eta OGP Euskadi webgunea kudeatu eta mantentzeko

- Bost konpromisoetarako arduradun tekniko bana; konpromiso bakoitzean lider diren erakundeek izendatuko dute konpromiso horretako arduradun teknikoa, solaskide aritu dadin homogeneizatze-lanetan, zailtasun eta aurrerapenei buruzko informazioaren bilketan... eta protokolo bateratuen aplikazioa berma dezan

5.- OGP EUSKADIREN PRESENTZIA FOROETAN, BILTZARRETAN...

Positiboa da OGP Euskadiren jarduera ezagutaraztea kanpoko ekitaldietan edo EAEn, eta guztiok lagundu behar dugu zabalkunde horretan:

- Dena delako ekitaldia egin aurretik, bertara joango den ordezkari instituzionalak, OGP Euskadi zer den, haren jarduera orokorra (plana) zertan den edota planean ezarritako konpromisoak zertan diren jakinarazi behar duenak, ekitaldiari buruzko oinarrizko informazioa emango dio Idazkaritza Teknikoari, webgunean argitara dadin: ekitaldiaren izena, lekua eta data, antolatzailea, parte hartuko duen pertsonaren izena eta egingo duen hitzaldiaren izenburua
- Ekitaldia egin eta gero, ahalik eta lasterren, hitzaldiaren edukia eta jendaurrean emandako informazio hori eskuratu ahal izateko estekak eta irudiak argitaratuko dira